

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

4 erreminta. *Ikasleak . Familiak.*

1. partea: **DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIORA: non gaude.**

(Eremuak: Hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa eta gatazken etika eta eraldaketa)

4. 1) Ondoko baieztapen hauek 1etik 4ra baloratu ikastetxea non dagoen hausnartuz.

	HEZKUNTZA-POLITIKA	4	3	2	1	HEZKUNTZA-POLITIKA
1	Ikastetxeko Zuzendaritza Taldea saiatzen da ikastetxea hobetzeko beharrezkoak diren prozesuetan berrikuntzak egiten					Ikastetxeko Zuzendaritza Taldea ez da saiatzen ikastetxea hobetzeko beharrezkoak diren berrikuntzak egiten.
2	Gure ikastetxeko hezkuntza-sistemaren ardatzak honako hauek dira: Ikaslearen heldutasun pertsonala lortzea, pertsonen arteko berdintasuna ziurtatzea eta baloreak eta elkarbizitza positiboa lantzea.					Gure ikastetxeko hezkuntza sistemaren ardatzak honako hauek dira: emaitza akademiko onak lortzea, kalitate handiko irakaskuntza ematea eta pertsonen arteko lehiakortasuna bultzatzea.
3	Ikastetxea antolatzeke garaian denen integrazioa da helburu nagusietako bat. Horretarako, gela bakoitza antolatzerakoan arraza, erlijio, jatorri... desberdinak dituzten ikasleak elkarrekin jartzen dira, hau da, ez dira gela batean elkartzen errepikatzaileak diren guztiak edo etorkinak diren guztiak edo noten arabera.					Ikastetxean gelak antolatzerakoan antzeko ezaugarriak dituzten ikasleak elkartuz egiten da. Horrela antolatutako taldeek laguntzen dute batzuk oinarrikoak diren ikaskuntzak eta portaerak lortzen eta besteek beraien gaitasunak hobeto garatzen.
4	Irakasleek ebaluazioa hobetzeko tresna bezala erabiltzen dute. Hori dela eta, gairen batean ebaluazioa negatiboa denean ikasleekin hitz egiten dute zailtasunak non dauden elkarren artean argitzeko. Ondoren, gai horiek gainditzeko edo hobetzeko bideak, lanak eta abar erabakitzen dituzte.					Ikastetxean ebaluazioa ikasleen notak kalifikatzeko bakarrik izaten da. Irakasleek ez dute erreflexionatzen egindako programazioa edo erabilitako metodologia egokiak izan diren ala ez. Gainera, irakasleek ez diete ikasleei ebaluazio negatiboa izan duten gaiak gainditzeko hartu beharreko neurriak edo egin beharreko lanak, etab. proposatzen.
5	Ikastetxeak badu irakasle, ikasle eta familientzako Prestakuntza-plan interesgarri eta motibagarria.					Ikastetxeak berak ez du prestakuntza jarduerarik antolatzen.
	BIZIKIDETZAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	4	3	2	1	BIZIKIDETZAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA
6	Elkarbizitza-araudiak eta jarduerak harreman, lan eta segurtasun-giro ona mantentzen laguntzen dute.					Elkarbizitza-araudiak eta jarduerak ez dute ikastetxean behar bezalako harreman onik, ezta lan eta segurtasun girorik ere sustatzen.
7	Ikastetxean ahalegin handia egiten da ahalik eta gatazka gutxien izan daitezen. Ahalegina egiten da baita ikasle, irakasle eta familiei tresnak ematen gatazkak gertatzen direnerako, era baketsuan eta elkarriketa erabiliz konpondu ahal izateko.					Ikastetxean ez dira aurreikusten sor daitezkeen gatazkak, mugak ere ez daude argi eta gatazkak gertatzen direnean erantzuna motela izaten da eta ez dute eraginik izaten.
8	Ikastetxean arauak ikastetxeko hezkuntza-komunitatekide guztien artean egiten dira, hau da, ikasle, irakasle, familien... artean.					Ikastetxeko arauak egiterakoan ez dute benetan parte hartzen ikastetxeko partaide guztiak. Berez, irakasle eta ikastetxeko zuzendaritza taldekoen artean egiten dituzte.
9	Eskola-elkarteak ezagutzen du eta bere egiten du elkarbizitza-araudia.					Araudia dokumentu zaharkitua eta ezezaguna da eta eskola-elkarteak ez du elkarbizitza sustatzeko tresnatzat hartzen.
10	Elkar ezagutzeko eta giro atsegina lortzeko jarduerak antolatzen dira.					Estamentu bakoitzak bere aldetik antolatzen ditu ospakizunak eta elkarren ondoan izateak elkarbizitza hobetuko duela uste da.
11	Arauk malgutasunez, baina zuzen aplikatzen dira.					Araudia ez da zentzuzkoa eta nahi den moduan aplikatzen da.
12	Ikastetxean demokrazia da nagusi eta elkarrekin bizitzeko espazio seguru eta eroso da. Honek zera esan nahi du, pertsona guztien segurtasun fisiko eta morala errespetatzen dela eta saiatzen gara, inor ez dadin beste pertsona edo botere taldeen esanetara makurtu.					Ikastetxea toki desatsegina da eta mehatxu eta umilazioek bizitza eta elkarbizitza positiboa oztopatzen dute. Gainera, zenbait pertsona eta botere taldek euren ikuspegia inposatzen dute era autoritarioak erabiliz.
13	Elkarbizitza positiboa garatu ahal izateko laguntza- eta entzule-taldea badago.					Ikastetxean uste dugu diziplina neurriak hartu eta aplikatuz lortzen dela elkarbizitza egoki bat izatea.
14	Bitartekaritza eta kideen arteko laguntza funtsezko elkarbizitza-tresnak dira.					Ikastetxeek kargurik altuenak dituzten pertsonekin osatutako organoak behar dituzte. Organo hauek dira elkarbizitza-jarduerak ezartzearen ardura dutenak.
	GATAZKEN ERALDAKETA ETA ETIKA	4	3	2	1	GATAZKEN ERALDAKETA ETA ETIKA
15	Gatazka errealitate bat da pertsonen arteko harremanetan eta taldearen zein pertsonaren garapenerako elementu baliagarritzat har daiteke.					Gatazkak sufrimendua sortzen duenez gatazkarik ez izatea lortu behar da eta errudunak zigortu norberaren eta taldearen eskarmenturako balio dezan.
16	Ikastetxean pentsatzen dugu elkarbizitza positiboaren estrategiak honako hauek direla: elkarriketa, besteak onartzea bere ezberdintasunak eta guzti, eta akordioa bilatzen saiatzea.					Elkarriketa eta akordioa bilatu nahi izatea ez dira konponbiderako prozedura egokiak izaten luze jotzen dutelako eta norberaren jarrera eta gogoak baldintzatzen dituelako.
17	Egoera gatazkatsuetan, estualdietan, kontuan izaten naute eta babestua sentitzen naiz ikastetxe honetan.					Ikastetxe honetan gatazkak bertsio bakarra dauka eta ez didate kasurik egiten, ezta babestu ere.
18	Ikastetxean idatziz jasota dugu hezteko balio duten santzioen katalogoa. Honen helburua hutsegiteak sortu duen kaltea konpontzea eta pertsonen arteko harremanak zaintzea da.					Hutsegitea egin duena zigortu egin behar da benetan axola eta kosta egingo zaion zerbaitekin.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

4. 2) Puntuazioa ondoko grafikora eraman. Hori ikastetxearen profila izango litzateke, zure ustez.

	Hezkuntza-Politika					Elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa									Gatazken eraldaketa				
4																			
3																			
2																			
1																			
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	

4. 3) Grafikoa aztertu.

	Zenbakiak	Oharrak
Puntu indartsuak (praktika onak/laguntzak)		
Ahultasunak (egoera problematikoak)		
Hobetzeko elementuak, eraldatzeko potentzialtasun handiena dutenak.		
Hobetzeko elementuak, hasteko egokienak direnak ikastetxerako.		

2. parte: GATAZKAK ETA ONDOEZAK. ZERGATIEN IDENTIFIKAZIOA.

4. 4) Aurreko hausnarketa prozesuan aurkituriko ondoezak eta gatazkak idatzi eta beren egiazko zergatiak bilatu.

	Gatazkak eta ondoezak	zergatiak	gertakarien maiztasuna			
			gutxitan	noizbait	askotan	Beti/ia beti
Hezkuntza-politika						
Elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa						
Gatazken eraldaketa						